

Erromatarrek antzerkia gogoko zuten?

zer nola
nork



Erantzuna:

Aizpea Goenaga

Oiasso Erromatar Museoako Zuzendaria

Erromatarrek eta antzerkia?
Erromatarrei antzerkia ikaragarri
gustatzen zitzairen. Baina jakina tradizio
hau, antzerkia egiteko tradizioa,
grekoengandik jaso zuten. Grezian
antzerkia sekulako garrantzia zeukan
baina antzerkia erabiltzen zen kritika
soziala egiteko, filosofía... halako gai
filosofiko eta handiak jorratzeko.

Tragediak izaten ziren, baita komediak ere baina erromatarrei bereziki
gustatzen zitzaiena komediak ziren. Barre egitea, hori zen gustatzen
zitzaiena. Bai egiten zuten tragediak, nola ez? Baina batez ere batez ere
komedia. Ondo pasatzea gustatzen zitzairen erromatarrei eta han elkartzeko
ziren antzokian parre eta parre egiteko. Hori da gustatzen zitzaiena.
Eta erromatar garaian antzoki handiak zeuden jakina, antzoki erraldoiak,
ba esate baterako Meridan dagoena bezalakoa. ¿Eta Oiassoko antzokia nun
ote dago? Hor Irungo kaleeren baten azpian gordeta egongo da.
Antzokiak normalean erromatar garaian tontor batean egiten ziren eta
horrela bista zoragarriak ziren, ba horrela eguzkia sartzen ikusteko eta
horrela antzerkia ikusten zenun bitartean eszenografia natural zoragarria
zenuen. Baina hala ere, erromatarrek asko asko zaintzen zuten eszenografia,
jantzia... guzti hori asko atondurak guztiak asko zaintzen zituzten.
Eta antzerki egile handiak egon ziren Plauto, Seneca esate baterako.
Eta asko, asko eta asko.
Baina ez zegoen handi hori bakarrik erromatar garaian, ez. Bazegoen ere
antzerki mota gehiago. Hurrengoan kontatuko dizuet.